



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko uztailaren 5a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eska dezan administrazio publikoek egiten dituzten kontratuetan erantzukizun fiskaleko klausulak sartzeari buruzko txosten bat. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten helduentzako unitate funtzional bat, diziplina anitzeko taldea izanen duena, sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunaren arloko lan-araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintzak bultzatzea. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei ureztatzea ahalbidetze aldera. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordeak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi bat aurkez dezan, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa berritzatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak hautatzea, Nafarroako Parlamentuak proposatuta (11. or.).

—Nafarroako Parlamentuak hautatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kideak hautatzea (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa."

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legeiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako foru legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2016ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhua Aznárez Igarza

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa

SARRERA

Gaur egun, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetza ondoko hauetan dago arautua: martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bidez onetsitako Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioaren 304. eta 307. legetan, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluan, eta haren erregelamenduzko xedapenetan, zehazki Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzari aplikatu behar zaion administrazio araubideari buruzko uztailaren 1eko 166/1988 Foru Dekretuan.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 48.2 artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko indarreko Konpilazioaren edo Nafarroako Foru Berria-

ren aldaketa foru lege bidez eginen da. Lege organiko horren 45.6 artikulua ezarri zuen foru lege batek arautuko dituela Nafarroaren ondarea nahiz haren administrazioa, defentsa eta zainketa. 20.2 artikuluan xedatzen denez, berriz, lege organiko horretan berriaz aipatzen diren foru legeak onesteko, gehiengo osoaren aldeko botoa jaso beharko dute proiektu osoari buruzko azken bozketan; horrelako legeak dira, hain zuzen ere, foru lege honen bidez aldatu nahi diren bi xedapenak.

Foru lege honen arazoia Borondatezko Jurisdikzioari buruzko uztailaren 2ko 15/2015 Legea berriki onetsi izana da, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen zenbait artikulua aldatu dituelako; horren xedea da Administrazioa abintestato jaraunsele deklaratzeko prozedura, orain arte epaitegiei zegokiena, eremu administratibora eramatea, bai eta prozedura horien emaitza den jaraunspeneko ondasunen likidazioa eta xedea arautzen zituzten Kode Zibilarren aginduak ere.

Era berean, uztailaren 2ko 15/2015 Legeak eta urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren eta Hiri Zaharberitzeari buruzko Legearen Testu Bateginaren laugarren xedapen gehigarriaren 3. atalak testu berria eman diote azaroaren 3ko 33/2003 Legearen azken xedapenetako bigarrenari, Konstituzioaren 149.1 artikuluan araugintzarako eskumenak banatzeko aurreikusitako sisteman onartu diren aldaketak gehitzeko. Horrenbestez, foru lege honek lege prozesalen arloan Estatuaren eskumen osoak diren arauak biltzen ditu, eta foru lege zibilen gaineko eskumen autonomikoak garatzen dituzten arauak jasotzen ditu, bai eta Nafarroako bere foru araubidearen indarrez dituen eskumen osoez baliatzen diren arauak ere.

Adierazitakoarekin bat, foru lege honek Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzen du, eta, horrela, abintestato jaraunselearen deklarazioa

zioak bide judizialek gauzatzen den prozedura izateari utzi, eta prozedura administratibo bihurtuko da. Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Lege indardunak antzeko aginduak jasotzen ditu beste kasu batzuetarako; horrekin bat, eta edukiari arau babes egokia emateko xedez, prozedurarako zenbait xedapen ematen ditu, besteak beste alderdi hauek arautzen dituztenak: ebazteko eskumena, publikitatearen baldintzak eta moduak, instrukzioan egin beharreko jarduketak, ebazteko gehieneko epea eta deklarazio administratibo horrek dituen edukia eta ondorioak ondasun eta eskubideen likidazioa egin arte.

Jaraunspeneko ondasunen likidazioak emandako zenbatekoari dagokionez, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. legearen edukia aldatzen da, eta ezartzen da interes sozialeko xedeetarako baliatuko dela eta handituko duela Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-zuzkidura. Indarreko banaketa, hau da ongintzako, hezkuntzako, ekintza sozialeko edo lanbide erakundeen artean, Nafarroako Komunitatekoen eta udaletakoeren artean erdi bana egiten dena, eguneratu egiten du aldaketa honek, kontuan hartuta horrelako erakundeen jardun eremua gero eta handiagoa dela, kausatzaileen mugimenduak eta egoitza-aldaketak herri eta hiri batean baino gehiagotan bizitzan zehar, eta prozesu horietarako erabiltzen diren bitarteko teknikoak eta langileak egokitu behar direla banatzen ahal den zenbatekoarekin.

Horrez gain, arau aldaketa hori Foru Komunitateko zergadunek interes sozialeko beste xede batzuetarako bideratzen dituzten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legearen edukiarekin lotzeko, apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluari idatz-zati berri bat, 9.a, erantsi zaio, honakoa zehazteko: jaraunspen horien likidazioak eragindako zenbatekoa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xede hori hautatzen duten zergadunen kuota osoekin hornitzen den aurrekontuko kontusailari gehituko zaio.

Foru lege honek indarra hartu aurretik Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunsele deklaratzeko hasitako prozedura judizialei dagokienez, xedapen iragankor bakarrak ezartzen du hasieraren datan aplikatzekoa den araudiaren menpe egonen direla. Likidatu eta banatzeko dauden jaraunspenei dagokienez, azkenik, haien tratamendua, xedea eta banaketa bateratzeko helburuarekin, foru lege honek eta haren erregelamenduzko xedapenek arautuko dituztela xedatzen da.

Lehenengo artikulua. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. Legearen 7. idatz-zatia aldatzea.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren 304. Legearen 7) idatz-zatiaren testua hauxe izanen da:

“7) Aurreko zenbakietan aipaturiko ahaidetik izan ezean, Nafarroako Foru Komunitatea izanen da oinordeko; horrek, ondasun eta eskubideen likidazioa egin ondoren, jaraunspena baliatuko du interes sozialeko xedeetarako, eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan xede horietarako ezarritako aurrekontu-zuzkidura handituko du”

Bigarren artikulua. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikulua aldatzea.

Bat. 24. artikulua 5. idatz-zatia aldatzen da.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluko 5. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“5. Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetza foru lege honek, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren arauak eta aplikatzekoak diren arau osagarriek edo erregelamenduzkoek zuzenduko dute.

Nafarroako Foru Komunitateko abintestato jaraunselearen izaeraren deklarazioa bide administratibotik eginen du ondarearen arloko eskumena duen departamentuak, behar bezala justifikatu ondoren oinordetza utzitako pertsonaren heriotza, testamenturik gabeko oinordetza irekitzea bidezkoa dela, eta beste jaraunsele legitimoak ez dagoela egiaztatuta.

Deklarazioaren espediente hurrengo idatz-zatietan eta horiek garatzen dituzten erregelamenduzko arauetan aurreikusitakoari jarraikiz tramitatuko da”

Bi. 24. artikuluari 6., 7., 8. eta 9. idatz-zatiak gehitzen zaizkio.

Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 24. artikuluko 6., 7., 8. eta 9. idatz-zatiak gehitzen dira, eta edukia hau da:

“6. Prozedurari ofizioz emanen zaio hasiera, organo eskudunak erabakita, berak bere ekimenez edo hauen ondorioz: goragoko agindu bat, beste organo batzuen eskaera arrazoitua edo salaketa, edo beste organo, entitate edo profesional batzuegandik jasotako jakinarazpenak.

Prozedura irekitzeko ebazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara, eta kausatzaileak azken hel-

bidea izandako toki entitatera, hil zenekora eta ondasun gehienak zituenera igorriko da, bertako iragarki oholetan argitara dezaten, horrek galarazi gabe zabalkunderako beste bitarteko batzuk ere erabiltzeko aukera. Ediktuak hilabetez egon behar dira jendaurrean, eta epe horretan interesdun orok alegazioak aurkezten ahalko ditu, edo egokitzat jotzen dituen agiriak edo beste datu batzuk.

Espedientearen instrukzioak berarekin ekarriko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren oinordetza eskubideak bidezkoak direla ezartzeko beharrezkoak diren egintza eta egiaztapen guztiak egitea, eta kausatzaileaz eta bere ondasun eta eskubideez lor daitezkeen datu guztiak ere barne hartuko ditu. Herritarren laguntza ere eskatzen ahalko da, foru lege honen 54. artikuluko aipatutakoa.

Espedientean txosten juridiko bat ere egonen da, Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko egindako jarduketan egokitasunaz eta nahikotasunaz, bai eta deklarazioa arautzen duten xedapenen betetzeaz ere.

Espedientearen ebazpena eta, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko abintestato jaraunsearen deklarazioa, departamentuan ondare arloko eskumenak dituen organoak emanen du, eta deklarazioan sartutako ondasun eta eskubideen zerranda zehaztua ere jasoko du, erabilera edo gozamenarako balizko mugekin eta espedientean horiei buruz izan daitezkeen aipamen ororekin batera. Prozedura ebazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, irekitzen den egunetik hasita.

Ematen den ebazpena espedienteari hasiera emateko erabakia argitara eman eta iragarri den toki berberetan argitaratuko da; eta, kasua bada, jaraunspeneko ondasunen gaineko esku-hartze arduratzen ari diren organo judizialei haren berri emanen zaie, eta, kasua bada, jaraunspenerako eskubidea izan lezaketenei jakinarazi beharko zaie.

Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 20.bis artikuluko 8. idatz-zatiarekin bat, azken xedapenetan bigarreneko 1. atalari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko prozedura honetan ematen diren ekintza administratiboen kontrako errekurtsioa aurkezten ahalko da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, soilik lehiaren eta prozeduraren gaineko arauak hausteagatik, bide administratiboa amaitu ondoren betiere. Administrazioa abintestato jaraunse deklaratzeko edo haren alde ondasunak adjudikatu izanak beren jaraunspenerako eskubi-

dea edo beste eskubide zibil batzuk kaltetu dituela uste dutenak dagozkion ekintzez baliatzen ahalko dira organo jurisdikzional zibiletan.

7. Nafarroako Foru Komunitateari abintestato jaraunsearen izaera emateko deklarazio administratiboak berarekin dakar jaraunspena inbentario-emaitzaren arabera onartzea, kausatzailearen ondasun eta eskubideen jabetza hartzea ahalbidetzen du, eta, kasua bada, eskubidea ematen du aginte judizialari haren zaintzapean daudenak entrega ditzan eskatzeko.

1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren bidez onetsitako Hipoteka Legearen 14., 16. artikuluekin eta haiekin lotutakoekin bat, deklarazio hori titulu nahikoa da Nafarroako Foru Komunitatearen alde Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko kausatzaileak bere izenean zituen higiezin edo eskubide errealak. Higiezin edo eskubide errealak lehena-gotik inskribatu gabe baldin bazeuden, deklarazioa titulu nahikoa izanen da immatrikulazioa egiteko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erantzukizuna, prozedura hauen xede diren ondasun eta eskubideen titulartasuna dela eta, organo judizialak entregatzen ditueneko edo haien jabetza egiazkoa hartzen duenean, une horretan hasiko da.

8. Jaraunsiaren egiazko jabetza hartu ondoren, ondare arloko eskumena duen departamentuak haren ondasun eta eskubideen likidazioa egiten du, ordaindutako gastuak eta kalte-ordainak kenduta, baldin badaude. Likidazio hori egiteko prozedura erregelamenduz ezarriko da.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Diruzaintzan likidazioaren zenbatekoa sartu ondoren, interes sozialeko beste xede batzuetarako aurrekontuetan dagoen kopuruari gehituko zaio, hain zuzen ere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergan xede hori hautatu duten zergadunen kuota osoen baturarekin hornitzen den horri."

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honek indarra hartzen duenean hasiak diren prozeduratan aplikatu beharreko arauak.

Borondatezko Jurisdikzioari buruzko uztailaren 2ko 15/2015 Legearen bigarren xedapen iragankorraren 1. idatz-zatiarekin bat, Nafarroako Foru Komunitatea abintestato jaraunse deklaratzeko prozedura judizialak, foru lege honek indarra hartu aurretik hasita zeudenak, hasi aurretik aplikatzeko zen araudiak zuzenduko ditu. Nolanahi ere, foru lege honek indarra hartzen duenean likidatzeko zeuden jaraunsiak eta likidazio horien emaitza diren kopuruen banaketa foru lege honek eta haren erregelamenduzko xedapenek zuzenduko dituzte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrrik gabe uzten diren xedapenak.

1. Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzari aplikatu behar zaion administrazio araubideari buruzko uztailaren 1eko 166/1988 Foru Dekretuak indarrean segituko du foru lege honen kontrakoa ez den guztian.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege hau gehiengo osokotzat hartzea.

Foru lege honek gehiengo osoa behar du onetsia izateko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri

eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2, 45.6 eta 48.2 artikuluen arabera.

Azken xedapenetan bigarrena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea.

Nafarroako Gobernuak behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzake foru lege hau garatu eta betearazteko.

Azken xedapenetan hirugarrena. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitatean patenteak sortzea susta dezan, jarduera berri-tzailearentzako babesa ziurtatuz, patente-ekoizpen-erako pizgarriak emanez eta honako ekintza hauek jasoko dituen plan bat garatuz:

1. Espainiar eta europar patente-ekoizleak babesteko laguntza ekonomikoarekin jarraitzea,

bai eta, merkatuari begira, jabetza industrial babesteko bestelako bide batzuekin ere.

2. Espainiar eta europar patenteen ekoizpena sustatzea, bai eta, merkatuari begira, jabetza industrial babesteko bestelako bide batzuk ere.

3. Espainiar eta europar patenteen ekoizpenaren inguruko prestakuntza, bai eta jabetza industrial babesteko bestelako bideak ere, merkatuari begirakoak.

4. Europako Patenteen Bulegoarekiko harreman formalekin jarraitzea eta horiek indartzea.

5. Patente-ekoizpenarentzako sari bat abian jartzea.

6. Lortutako emaitzak jakinaraztea"

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eska dezan administrazio publikoek egiten dituzten kontratuetan erantzukizun fiskaleko klausulak sartzeari buruzko txosten bat.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eska dezan administrazio publikoek egiten dituzten kontratuetan erantzukizun fiskaleko klausulak sartzeari buruzko txosten bat"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Kontratazio Publikoaren Bartzarrari eska diezaion txosten bat egin dezan, Nafarroako Administrazio Publikoen etorkizuneko kontratazioen baldintza-agirien fase ezberdinetan sar litezkeen klausulei buruzkoa, honako hauek direla-eta: lege-ordenamendu indardunaren arabe-

ra paradisu fisikaletan jarduten duten eta horietan zergak ordaintzen dituzten enpresa parte-hartzaileen erantzukizun fiskala eta lehia askea nahiz kontratueterako sarbide-berdintasuna.

2. Aldeko erabakia lortu baldin bada, eta erabaki horren norainokoa aintzat hartuta, berehala taxutu dezan beharrezkoa den araudia, jarduera ekonomikoa paradisu fisikaletan daukaten edo/eta horietan presentzia duten enpresa parte-hartzaileen tratamendua aurreikusten duten kontratazio publikoko prozesuetan kontratu-klausula horiek sartzeko aldera. Klausula horiek bideratuta daude gardentasun publikoa bermatuko duten irizpideak jasotzera, bai prestatze-faseko aurretiazko baldintza gisa, bai balorazio-elementu gisa, beren betebeharrak fiskalak behar bezala betetzen dituzten enpresen mesedetan, edo betebeharrak gisa exekuzio-baldintzetan.

Aldeko txostena eginez gero, baldintza-agirietan esplizitatuko da zergak paradisu fisikaletan ordaintzen dituzten enpresa horiek ez direla lehiatzen baldintza-berdintasunean, eta honako informazio hau eskatuko da, eskumendeko enpre-

sen arabera xehakaturik; hots, lurralde fiskaltzat hartzen den herrialde bakoitzean daukan eskumendeko enpresa bakoitzaren arabera:

Izena.

Jarduera.

Langile kopurua

Negozio-zifra.

Irabaziak/galerak.

Ordaindutako zergak.

Jasotako diru-laguntzak

3. Kontratuari buruzko foru lege proiektu berrian arautu dadin kontratazio publikotik bazter geldituko direla paradisu fisikaletan kokaturik dauden edo haietan presentzia handia daukaten enpresak, hori justifikatzen duen jarduera ekonomikorik gabekoa, beren betebeharrak fiskalak behar bezala betetzen dituzten enpresen eta, horrenbestez, ardura fiskal handiagoa erakusten duten enpresen mesedetan”

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten helduentzako unitate funtzional bat, diziplina anitzeko taldea izanen duena, sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten helduentzako unitate funtzional bat, diziplina anitzeko taldea izanen duena, sor dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

1. Diabetesa duten helduentzako unitate funtzional bat, diziplina anitzeko taldea izanen duena (oftalmologia, neurologia, oin diabetikoaren unitatea...), sortzeko lan egin dezan, halakoa non azterketa medikoen kopurua murriztuko baita, horiek bateratuz, eta oftalmologiako itzarotzerrenden kudeaketa berraztertu ahalko baita konplikazioak saihesteko, endokrinologoaren irizpideak betez eta begi-patologia diagnostikatzeko teknikak hobetuz; adibidez, aldizkako erretinogra-

fia, pazientearen kontrol metabolikoa nolakoa den ere.

2. Osasun-sistemaren barnean mekanismoak ezar ditzan, diabetesa duten pertsonen bizitza osoan zehar –eta ez debut-unean bakarrik– diabetesaren inguruko hezkuntza etengabea eta sistematizatu bermatzen dietenak, autozainketa eta tratamenduarekiko atxikidura indartuta. Diabetesaren inguruko hezkuntza hori bermatu egin behar zaie diabetesa duten pertsonen, haien diabetes mota (I. mota eta II. mota) zein den ere.

3. Diabeteserako material suntsikorra banatzeko irizpideak bateratu ditzan, diabetesa duten pertsonen material hori eskuratzea erraztu dezan eta gure erkidegoko osasun-zentro eta ospitale guztietan irizpide horiek betetzen direla ziurta dezan.

4. Diabetesa duten pertsonen endokrinologia-zerbitzuetatik jakinaraz azal dakien diabetesaren

tratamendurako teknologia berrien aplikazioa, zeinak ahalbidetzen baitu tratamenduarekiko atxikidura handiagoa, gaixotasunaren gaineko auto-kontrol hobea eta pertsonaren bizi-kalitate handiagoa. Une honetan honako hauek dira teknologia berri horiek: intsulinaz hornitzeko gailuak (BICI) eta glukosa-sentsoreak.

5. Azterlan bat egin dezan, ikastetxe publikoetan erizaintzako profesional bat ezartzearen gaineko beharrianak eta aukerak ikertuko dituen, osasunerako eta ohitura osasungarrietarako hezkuntza sustatze aldera eta diabetesa bezalako patologiak dituzten adingabeei behar bezalako arreta bermatzeko.

6. Baterako protokolo bat presta dezan, derrigor bete beharrekoa, Hezkuntza Departamentuaren, Osasun Departamentuaren, Diabetes Pediatrikoaren Unitatearen, ANADIren eta/edo gai horretan egiaztatuta dagoen beste edozein elkar-terren artean. Protokolo horrek behar bezalako arreta (gluzemiak egitea, intsulina ematea ...) bermatuko die diabetesa duten adingabeei ikastetxetan, eskola-ordutegiaren barnean zein horretatik kanpo, ikasgelaren barnean eta bestelako jardueretan ere (adibidez, txangoak).

7. Hezkuntza Departamentuari eska diezaion jantoki horiek antolatzen dituzten guraso-elkarteei eskaera egin dakien, eskola-jantokiak gaur egun diruz laguntzen diren heinean, jantoki horietan ikasle guztien beharriari behar bezala erantzuten zaiela berma dezaten, beharrian bereziak dituzten umeak horietatik baztertuta geratzea eragotzita.

8. Suhiltzaile eta polizia izateko enplegu publiko deialdietan erabiltzen diren medikuntza-bazterketen taulak berrikus ditzan eta diabetesa duten pertsonak banan-banan baloratuak izan daitezzen, kontuan hartuta diabetes mota, tratamendua, gluzemia-kontrolaren maila (batez besteko mailak eta aldakortasuna), jakintzak eta konplikazio arinak eta larriak, pertsona bat lanpostu horretarako gai ala ez-gai den erabakitzerakoan.”

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunaren arloko lan-araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintzak bultzatzen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berdintasunaren arloko lan-araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintzak bultzatzen.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berdintasunaren arloko lan-

araudi osoa betetzen dela bermatzeko behar diren ekintza guztiak bultzatzen, bere eskumenaren esparruan, eta ekintza zehatzak abiaraz ditzan enplegura eta lanbidera sartzean tratua eta aukera-berdintasuna sustatzeko eta arraza, larru-kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri edo gizarte-jatorriaren araberrako arrazoietan oinarritutako bazterkeria Nafarroako enpresa guztietan erazteko.”

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei ureztatzea ahalbidetze aldera.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2016ko ekainaren 28an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei ureztatzea ahalbidetze aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauetarako behar diren baimenak eta lanak eman ditzan:

1. Murillo de las Limasko Ureztatzaile Elkarteak bere ponpaketa-estazioaren inguruko legarrak garbitu ahal izatekoa, horrela legarrek ponpaketa-estazioa oztopatzea ekidinen baita.

2. Behar den makineria erabiliz Traslapuenteko Ureztatzaile Elkarteak lohiak, adarrak eta legarrak garbitu ahal izatekoa; izan ere, hondar horiek presa txikia ia itsu utzi dute, eta ibaiaren maila jaisten denean ureztatzea ezindu egiten dute.

Lan guztiak Nafarroako Gobernuako teknikariak bertan daudela egin beharko dira".

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Javier García Jiménez jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ubidearen bigarren fasea Pitillasen eta Buñuelen artean eraikitzeko proiektuaren idazketa kontrata dezan".

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko ekainaren 30ean egindako bileran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi bat aurkez dezan, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa berriztatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Maribel García Malo andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egutegi bat aurkez dezan, Ezgaitasunaren Arreta Integralerako “Valle del Roncal” Iruñeko zentroa berriztatzeko eta handitzeko proiektua gauzatzeko”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko ekainaren 30ean egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak hautatzea, Nafarroako Parlamentuak proposatuta.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2016ko ekainaren 30ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Ondoko pertsonak hautatzea Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide:

– Sergio Sayas López jauna (titularra) eta Cristina Altuna Ochotorena andrea (ordezkoa).

– Guzmán Miguel Garmendia Pérez jauna (titularra) eta Inmaculada Jurío Macaya andrea (ordezkoa).

– Laura Lucía Pérez Ruano andrea (titularra) eta Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea (ordezkoa).

– Patxi Leuza García jauna (titularra) eta María Luisa De Simón Caballero andrea (ordezkoa).

2. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta interesdunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuak hautatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kideak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2016ko ekainaren 30ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Ondoko pertsonak hautatzea Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide, Nafarroako Parlamentuak proposatuta:

– Cristina Bayona Sáez andrea

– Javier Miranda Erro jauna

– Manuel López Merino jauna

2. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari, interesdunei eta Nafarroako Kutxa Fundazioari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”

Iruñean, 2016ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
